

Prentsa oharra

Nota de prensa

Gabonak zuretzat programa 2020an ere zurekin

*Donostia Gazteriak, urtero legez, **Abenduaren 14an hasi eta Urtarrilaren 6ra arte** hirian antolatuko diren haur, nerabe zein gazteei zuzenduriko ahal den jarduera gehienak biltzea du helburu eta aurtengoa ezta salbuespena izango. Horretarako hiriko hainbat elkarte, aisialdi talde eta bestelako eragilerekin elkarlanean egitarau zabala prestatu dugu; esan bezala, haurrentzako, familientzako zein nerabe eta gazteentzako.*

Hasteko azpimarratu nahi dugu 2020 berezi honetan bizi dugun krisi egoera dela eta jardueraz gozatzeko eta horietan parte hartzeko beharrezko segurtasun neurri guztiak bermatuko ditugula. Eta, nahitanahiez bete beharreko neurriak hartuko direla; horien artean, maskararen erabilpena, distantziak errespetatzea, aldezturik izen emateak eta aforoen kontrol zorrotza. Izango dira Gazteriarekin elkarlanean antolaturiko jarduera anitz elkarte, talde edota erakunde ezberdinek kudeaturikoak eta izango dira ere Gazteriak berak antolaturiko egitasmoak. Eta guztietan jarraitu beharreko aholku eta proposamenak emango dira **segurtasuna** bermatzeko ezerren gainetik.

Gauzak horrela, Gabonetan hiritar gazteek **eskaintza zabala** izango dute: besteak beste, hainbat tailer, magia ikuskizun edota antzezlan izango direlarik. Batetik, hiriko ekipamenduak diren tokietan bertako eragileek antolatutakoak eta, bestetik, ekipamendurik ezten hiriko txokoetan Gazteriak berak antolaturikoak; horien artean, Añorga edota Ibaeta. Izan ere, gabonetako eskaintza hiri guztira zabaltzea da Gazteriatik helburuetako bat, bertako 0 eta 30 urte bitarteko donostiarrak gozatzeko aukera izan dezaten; familia, haur, nerabe zein gazte.

Egitaraua aurten, paperean bilduko ez bada ere, izango da formato digitalean eskuratzeko modua. Familia eta haurrentzako eskaintza, zein nerabe eta gazteena bilduko delarik; 0-30 urte bitarteko donostiarrak kontuan ditugula. Era horretan, www.donostia.eus/gazteria web orrian informazio guztia bilatu dezakezue.

Irudiari dagokionez, programaren aurtengo identitate grafikoa **Usandizaga Ikastetxeko Diseinu Grafiko Heziketa Zikloa** eta Donostia Gazteriatik berak antolatutako elkarlanari esker sortutakoa da. Diseinu Zikloko 1. mailako ikasleek 15 lan prestatu dituzte talde lanean urte berezi honetan **Begirada anitzak** leloan oinarriturik. Proposatutako diseinuen artean 5 irudi nagusi aukeratu dira aurten programa iragartzen duten karteletarako baina lan guztiak ikusgai izango dira sare sozialetan eta horretarako prestatutako erakusketan, abenduaren 18tik aurrera, **San Martin Merkatuan**.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Haurrentzako programa

Gabonak zuretzat programaren bidez aisialdia modu egokian bideratzeko ohiturak sortu nahi dira, ondo pasatzeko eta dibertitzeko era berriak ezagutzeko aukera emanez. Bestelako balio batzuk ere landu nahi dira, besteak beste, hezkidetza, elkartasuna eta sormenezko aisialdia, eta horretarako haurrengana iritsi nahi da haien inguruko eta hurbileko entitateen bidez.

Haurrentzako programak (0-11 urte) jarduera ugari eta anitzak biltzen ditu eta ia **auzo guztietara** zabaltzen da. Honako hauek dira GABONAK ZURETZAT aurrera eramateko Gazteriak aurten **bidelagun** izango dituenak: *Donostia Kultura, San Telmo museoa, Cristina Enea Fundazioa, Arkitektura Insitutua, Aquariuma, Eureka museoa, Kutxa fundazioa eta hiriko hainbat eta hainbat elkarte zein kultur eragile*. Eta, horien artean, aurten bidelagun berria dugun Kofradia/Itsas Etxea elkartea, gaur gure artera gonbidatu duguna.

Gauzak horrela, hiriko gazteenek **hainbat jardueraz** gozatzeko aukera izango dute: tailerrak (gabonetako gozoen tailerra, apaingarriak, esperimentu tailerra, etab.); jolasak (mahai jolasen zirkuitoa, kaxen jolasa edota kodeena); zinema; antzezlanak edota magia ikuskizunak.

Halaber, **Donostia Gazteriak** zenbait **emanaldi berezi** antolatu ditu egitarauaren barne: “Izaki bereziak” ikuskizuna (abenduak 22, 17:00, San Telmo Museoa); “Tomaxen abenturak: Adi grabatzen ekin!” antzerkia (abenduak 29, 17:00, Amassorrain ikastetxean); Txan magoaren “Hausle” lan berria (abenduak 30, 17:00, San Telmo museoan hau ere); gabonetako zirkua Ibaetako Frontoian urtarilaren 4an..

Eta ahaztu gabe, tokian tokiko elkarte eta eragileak. Izan ere, haien ahalegina txalotzeko modukoa da urtero eta ezta salbuespena izango aurtengo edizioan ere. Eta lan horri esker eskaintza hirira zabalduko da haur, nerabe eta gazteak aisialdiaz era osasuntsuan gozatzeko aukera izan dezaten hiriko edozein tokitan bizi direla ere.

Gazteen egitaraua

Haurrentzako esandakoak jarraipena du gazteentzako eskaintzan eta urtero legez bada zer aipatu oraingo honetan ere. Aurten adibidez Intxaurrondo Kultur Etxean “**SKAKEITAN**” taldea izango da abenduaren 29an, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei musikaz gozatzeko aukera eskainiz. Gogoratu talde honek Gaztea Irratiko diska onenaren saria jaso berri duela. Bertaratzeko aurrez izena eman behar da eta sarrerak Intxaurrondoko takilan bertan jasoko dira. Gogoratu aurtengo segurtasun neurriak direla eta edukiera mugatua izango dela eta beraz lehenbailehen **izena ematera** gonbidatzen zaituztegu, edukiera betetzean izen emateko zerrendak itxi egingo direlako. Izen emateak gaur bertan zabalduko dira <https://labur.eus/vgflK> Gazteriak-eko web orrian (abenduaren 9an).

Prentsa oharra

Nota de prensa



Era berean, Donostia Gazteriak **doako tailer** hauek antolatu ditu: *parkour*, *“Gabon Gazte Txef”* eta *“komiki tailerra”*.

Guztira, jarduera hauetan guztietan, aurrez izena eman behar da:

- Gabon Gazte Txef (*dagoeneko izen ematea zabalik*):
 - Abenduak 19, 10:30-13.30, 12-14 urte, Basque Culinary Center-en.
 - Abenduak 20, 10.30-13:30, 15-17 urte, Basque Culinary Center-en.
- Parkour tailerra: abenduak 22-23, 11:30-13:00, 12-17 urte, Indianoene kalean, Grosen. (*dagoeneko izen ematea zabalik*).
- Komiki tailerra: Abenduak 29, 17:30-19:00, 12-17 urte, Kontadores Gazte Zentroa.
- Escape street baxurako arrantza eta Donostiako historia: Abenduak 21-24 artean. 12 eta 30 urte bitartekoentzat. Donostiako kaian.
- Antzerki amateurra; Abenduak 18 eta 26an. Publiko ororentat. Kontadores Gazte Zentroan

Izen ematea, aurrez esan bezala, <https://labur.eus/vgflK> web orriaren bitartez egin behar da. Ikuskizunetan zerrendak itxiko dira lekuetako edukierak betetzen direnean. Eta, tailerretan berriz, edukierak gaindituz gero, zozketa egingo da izena eman duten guztien artean. Kontuan izan beraz bai tailer eta bai ikuskizun guztietan aurretiko izen ematea beharrezkoa dela eta, horrela ez bada egiten ez dela aretoetara sartzeko aukerarik izango.

Bukatzeko, hauek dira **aurrez izena emateko kontuan izan beharreko datak**:

- Parkour tailerra; abenduaren 2 eta 13 artean.
- Gabon gazte txef; abenduaren 2 eta 13 artean.
- Komiki tailerra; abenduaren 9 eta 20 artean
- Argazki rallya: abenduaren 9 eta 26 artean
- SKAKEITANen kontzertua: abenduaren 9 eta 22 artean
- Haur antzerkia Añorgan, Amassorrainen; abenduaren 9 eta 23 artean
- Zirkua Ibaetan; abenduaren 9 eta 28 artean
- Filmak Kontadores gazte zentroan: abenduaren 9tik aurrera.(izen ematea kontadores-en)
- Antzerki amateurra Kontadores gazte zentroan: abenduaren 9tik aurrera. (izen ematea kontadores-en)